

GURUTZEKO PAULO SANTUA

1

Aixkide bihotzekoa
badot zutzat sekreto:
orain hirureun urte dirala
gertatutakoa:
San Paulo Gurutzekoa
semez Italiakoa,
Pasiotarren Anaiartea
eraikitakoa.

2

Kristau famili jatorra
frutuetan emokorra,
hamasei seme-alaba sortu
zituen enborra.
Bizimodua gogorra
baina ondorenak, horra:
zintzoarentzat guruzbidea
ez dala zigorra.

3

Jaioterria Ovada,
zetan harrotu badauka:
on egiteko haundiki baino
santu bat hoba da.
Amak betiko aldaba:
“Seme, ikasi ahal bada,
baina lehenengo on-ona izan;
nahi bada, hau ahal da.

4

Ama zan jainkozalia
gurutzaren maitalia;
santu-eskola onena sarri
ohi da familia.
Neke, barau, bijilia,
gorde-galduz ibilia...
Gurutz-ondoan dator bakarrik
holako alia!

A. Martzel